

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

**HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK**

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Argi berdea motibazio politikoko biktimen errekonozimendu eta erreparazioari buruzko foru-legeari

Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa, Podemos–Ahal Dugu-Orain Bai eta Izquierda-Ezkerra alderdiek aurkeztu dute Parlamentuan

Asteazkena, 2019.eko urtarrilak 23

Foru Gobernuak gaurko bileran onartutako akordioaren bitartez adierazi du Eskuin muturreko Taldeek edo Funtzionario Publikoek eragindako motibazio politikoko biktimen errekonozimendu eta erreparaziorako foru-legearen proposamena aintzat hartzearekin ados dagoela. Proposamena Nafarroako Parlamentuan aurkeztu dute Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa, Podemos-Ahal Dugu-Orain Bai eta Izquierda-Ezkerra aldeek.

Ildo horretan, Foru Exekutiboak, Bake, Bizikidetzeta eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, urte hauetan zehar, biktima guztiak artatzeko politika publikoak ezarri ditu, bakoitza bere testuinguru historikoan, araudian eta biktimologikoan kokatuta.

Beraz, biktimek egia, justizia eta erreparazioa izateko Nazioarteko Zuzenbideak arautzen duen eskubideari eta erakunde demokratikoek duten memoria-betebeharrari erantzuteko asmoarekin, Gobernuak ondorengo adierazi du: “beharrezkoa da erakundeek beren erantzukizuna hartzea motibazio politikoko testuinguruetan Giza Eskubideen urraketa larriak jasan dituzten pertsonak artatzerakoan”.

Horrez gain, Exekutiboaren testuan ondorengo gehitu dute: “ezinbestekoa da lan hori egitea gizarte zuzenagoa, etikoagoa eta demokratikoagoa eraikitzeko borondatearekin, Giza Eskubideen iraganeko urraketak berriro gerta ez daitezen”.